
3 GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO XEDAPEN OROKORRAK

GFA - DIPUTATU NAGUSIA

Martxoaren 28ko 22/2006 FD, Zerga Administrazioari informazioa emateko betebeharrari buruzko xedapen batzuk garatzeko abenduaren 21eko 117/1999 FD aldatzen duena.

60. artikulua. Informazioa eman beharra dakarten errentak.

1. Hauexek dira kapitulu honetan araututako informazioa eman beharra aplikatuko zaien errentak:

a) Hirugarren batzuei norberaren kapitalak lagatzeagatik jasotzen diren interesak eta lagapen hori ordain tzeko hitzar tzen den beste edozein ordainketa modu, besteren kapitalak erakarri eta erabitzearen ordezkari diren mota guztietako aktiboak eskualdatu, itzuli, amortizatu, trukatu edo bihurtuta sortutako etekinak barne, eta Per tsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 24ko 8/1998 Foru Arauak 35. artikuluan aipatutako gainerako errentak ere bai, berandutza errekarguak izan ezik.

b) Ondoren adieraziko diren entitateek bana tzen dituzten emaitzak, aurreko a) paragrafoan azaldutako errenten ondoriozkoak diren heinean.

1. Inbertsio kolektiboko erakundeak, Kontseiluaren 1985eko abenduaren 20ko 85/611/EEE Zuzentarauan arautuak.

2. Foru dekretu honek 61. artikuluan 2 apartatuko bigarren paragrafoan jasotako aukerari heldzen dioten erakundeak.

3. Europar Erkidegoaren Ituna aplikatzen den lurraldetik kanpoko inbertsio kolektiboko erakundeak.

c) Aurreko b) paragrafoan aipatutako entitateen akzioak edo partaidetzak eskualdatuta edo itzulita lortzen diren errentak, baldin eta entitateak, zuzenean edo mota bereko beste entitate batzuen bidez, bere aktiboen %40 baino gehiago inbertitu badu aurreko a) paragrafoan aipatutako errentak sortzen dituzten balore edo kredituetan.

Honen ondorioetarako, akzio edo partaidetzen eskualdaketa edo itzulketaren bidez lortutako errentaren zenbatekoa zehazterik ez badago, haien eskualdaketa edo itzulketa balioa hartuko da kontuan.

Aipatutako portzen tajea fondoaren erregelamenduan edo entitatearen eraketa eskrituran inbertsioei buruz ezarritako arauen edo irizpideen ondoriozko inbertsio politikaren arabera finkatuko da. Horrelakorik ezean, aktiboen benetako osaeraren arabera finkatuko da, emaitzak banatu edo eskualdaketa edo itzulketa egin aurreko ekitaldiko aktiboen batez besteko osaera kontuan hartuta.

2. Aurreko 1.a) apartatuan xedatutakoari dagokionez, finantza entitateak ezin badu zehaztu eskualdaketa, amortizazio edo itzulketa eragiketa baten etekinaren

zenbatekoa, Zerga Administrazioari eskualdaketa, amortizazio edo itzulketa balioa jakinarazi behar dio.

Halaber, 1 apartatuko b) eta c) paragrafoetan xedatutakoari dagokionez, errentaren ordaintzaileak ez badaki banatutako emaitzetatik zer kopuru dagokien, zuzenean zein zeharka, apartatu horretako a) paragrafoko errentak sortzen dituzten balore edo kredituei, ez zein den inbertitutako inbertsioetatik haiei dagokien portzen tajea, etekin osoa horrelako errenta edo aktiboen ondoriozkoa dela pentsatuko da.

Hala ere, informazioa eman behar dutenek honako hau hautatu dezakete 1 apartatuko b) eta c) paragrafoetako errentei dagokienez: Banatutako emaitzaren guztirako zenbatekoaren edo inbertsio kolektiboko entitateen akzioak edo partaidetzak eskualdatzean edo itzultzean lortutako guztirako zenbatekoaren berri ematea, hurrenez hurren.